

## BALDINTZA IV: HIPOTETIKOA (NOR, ZER-NORK)

Baldintza hipotetikoak aurrera begiraten du, esan bezala, eta gerta daitekeen hipotesi bat adierazten du. Egitura hau dauka:

Baldintza	Ondorioa
<b>BANU (sintetikoa)</b>	
<b>-KO BANU</b>	<b>-KO.....-KE</b>

Adibidez:

- ➡ *Etorriko balitz, pozik hartuko nuke.*  
 (si viniera, lo recibiría...)
- Arropa ona ikusiko banu, erosiko nuke.*  
 (si viera..., compraría)
- Bihar jubilatuko bazina, zer egingo zenuke?*  
 (¿si te jubilaras..., qué harías?)
- \* \* \*
- ➡ *Gazteagoa balitz, hartuko genuke.*  
 (si fuera..., lo cogríamos)
- Lasaiago balego, ondo egingo luke dena.*  
 (si estuviera..., lo haría...)
- Nahi bazenu, egingo zenuke.*  
 (si quisieras, lo harías)

### Gogoan izan:

✓ *Sintetikoetan: BA + iragana -(e)N gabe*

NUen	➡ BANU	(si tuviera)
ZENEUKA n	➡ BAZENEUKA	(si tuvieras)
GEUNDEn	➡ BAGEUNDE	(si estuviéramos)
NEKlen	➡ BANEKI	(si supiera)

✓ *Perifrastikoetan: -KO + BA + iragana -(e)N gabe*

JAKINGO BANU	(si supiera)
EGINGO BAZENU	(si lo hicieras)
JOANGO BAZINA	(si fueras)
GALDUKO BANINTZ	(si me perdiera)

✓ *Ondorioak beti -KE*

✓ *Hirugarren pertsona: Z- ➡ L-*

ZUen	➡ BALU, LUKE
ZEUKATEn	➡ BALEUKATE, LEUKAKETE
ZEKlen	➡ BALEKI, LEKIKE
ZIRAn	➡ BALIRA, LIRATEKE

# ARIKETAK

## 6. PASA BALDINTZA HIPOTETIKORA

Adibidez:

*Mugitzen bazara, hartuko duzu trena*

☛ *Mugituko bazina, hartuko zenuke trena*

1. Atzean jartzen bazara, ez duzu ezer ikusiko.
2. Egunero ateratzen bada, jende asko ezagutuko du.
3. Zuek joaten bazarete, gu ere joango gara.
4. Hori itxita badago, beste batera joango gara.
5. Gehiago nahi badute, eskatuko dute.
6. Sobratzen badira, nik hartuko ditut.
7. Gustuko jertseren bat ikusten badut, erosiko dut.
8. Zuek irabazten baduzue, poztuko naiz.
9. Ariketa guztiak egiten badituzu, sasoian jarriko zara.
10. Nik ordenadorea erosten badut, berak ere erosiko du.
11. Lanpostu hori lortzen baduzu, izugarri poztuko da aita.
12. Bi partidu irabazten badituzte, promoziotik libre geratuko dira.
13. Ausartzen bazara, Gorbeia eta Anboto egingo ditugu egun berean.
14. Nahiko diru aurreratzen badu, opor politik egingo ditu.
15. Goiz jaikitzen bagara, hamabietarako amaituko dugu lan guztia.

## 7. BETE FALTA DEN BALDINTZA

Adibidez:

☛ *Argia ..... joango balitz ....., kandela piztuko genuke.*

1. Eguraldi ona ....., hondartzara joango ginateke.
2. Mendira ....., ederki pasatuko zenukete.
3. Trena ....., lehenago iritsiko zinateke.
4. Pianoa jotzen ....., kontzertuak emango nituzke.
5. Auto guztiak polikiago ....., ez litzateke istripurik izango.
6. Betaurreko zahar hauek ....., okerrago ikusiko nuke.
7. Parisa dirurik gabe ....., ezingo nuke ezer erosi.
8. Adizu, erdi hutsak dituzu gurpilak; ....., hobeto ibiliko zinateke.
9. Beste bi partidu ....., txapeldunak izango ginateke.
10. Lasai, berandu ....., ez ginateke zu gabe joango.
11. Auto hori merkeago ....., erosiko nuke.
12. Betaurrekoak ....., ez luke kalteko izango.

## 8. AMAITU PERPAUSAK

1. Argia joango balitz, .....
2. Diru gehiago banu, .....
3. Lanik gabe banengo, .....
4. Bakarrik biziko banintz, .....
5. Autoa hondatuko balitz, .....
6. Eguraldi txarra egingo balu, .....
7. Etxean janaririk ez balego, .....
8. Sua sortuko balitz, .....
9. Trena berandu etorriko balitz, .....
10. Buruko mina banu, .....

## 9. EUSKARATU

1. Si te levantas antes, llegarías a tiempo.
2. Si se presentaran, serían los primeros.
3. Si ganaras, me alegraría.
4. Si hiciera buen tiempo, iríamos al monte.
5. Si anduvieras más despacio, no te caerías.
6. Si se pusiera gafas, vería mejor.
7. ¿Qué harías si fueras ricos?
8. Si supiera inglés, encontraría trabajo enseguida.
9. Si no fuera tan tímido, tendría más amigos.
10. Si quisiéramos, ganaríamos todos los partidos.

## 10. HUTSUNEAK BETE.

*Ondoko testuetan egoera hipotetiko bat aipatzen da; egoera horretan solaskide bakoitzak berak zer egingo lukeen esaten du. Bete itzazu zeuk hizketa horietan dauden hutsuneak.*

### A.

Zaharren egoitza batean gizon eta emakume batzuk hizketan ari dira, kafea hartzen duten bitartean. Gaztetako kontuak aipatzen ari dira, beti bezala. "Gaztetan hau egiten genuen", "gaztetan honela ibiltzen ginen"... Halako batean Inaziok honela galdetu zien lagunei, irribarrez:

—Aizue, beti ari zarete gaztetako kontuak berritzen, gaztetan hau, gaztetan hura... Zer egingo zenukete zuek orain, gazteak bazinete?

Pixka batean pentsatzen egon eta gero, honela erantzun zuten lagunek:

- a. ROBERTOK: Ni, gaztea banintz, bidaiatzen hasiko .....  
Hilabete batzuk pasatuko ..... herri bakoitzean. Lehenbizi Kanadara joango .....; gero Asia aldera joko ....., Indiara edo Afrikara, ordea, ez ..... joango.

- b. LURDESEK: Ni, berriz, dudan eskarmentuarekin, ez ..... ezkonduko; ezkongai geratuko ....., loturarik gabe bizitzeko. Lanen bat hartuko ....., han edo hemen, independente izateko eta ez ..... etxeke lanetara mugatuko.
- c. JOAKINEK: Nik karreraren bat ikasiko ..... . Ikasteko balio nuela esan zidan niri maisuak eskolan, baina etxean dirurik ez zegoenez, lanean hasi behar izan nuen hamasei urterekin. Orain gaztetuko ....., ez ..... berriro horrela ibili nahi; ahaleginak egingo ..... Unibertsitatean sartzeko.
- d. ANAK: Nik ez ....., bada, ezer aldatuko. Berriro ezkonduko ..... eta familia handia haziko ..... . Oso pozik bizi izan naiz ni seme-alabez inguratuta.
- e. TEREK: Ni ere ez ..... aldatuko. Berriro ere medizina ikasiko ..... eta gaixoak ahalik ondoen hartuko ..... beti.

\* \* \*

## B.

Irrati-saio batean hiritar batzuk bildu ditu kazetariak eta honako galdera hau egin die:

—Pentsa ezazue hurrengo lau urteetan herriko alkate zaretela. Zer egingo luke zuetako bakoitzak?

Honela erantzun zuten han bildutakoek:

- a. TXOMINEK: Ni ez ..... dena neronek egiten hasiko; herritarren artean taldeak antolatuko nituzke eta talde horiekin bilduko ..... maiz, herriaren eskariak eta beharrak aztertzeko. Hori bai, nire esku balego, baserriekin hasiko nintzateke aurren-aurrea; azken baserriraino eramango ..... errepideak, argia eta telefonoa. Kasu egin behar zaie nekazari, bestela gainbehera joango zaigu herria.
- b. MIRENEK: Ni gaztea naizenez, aurren-aurrea gaztetxea egingo .....; horixe izango .....aurreneko lana. Gero, ez dakit, kiroldegia egingo ..... beharbada, handia eta denontzat irekia. A, eta lanpostuak! Gazteentzat lanpostu berriak bultzatuko .....
- c. LUPEK: Aizue, eta hezkuntza zer? Nik lanbide-eskola bat eraikiko ..... beste ezer baino lehen. Gaurko lanbide berriak erakutsiko ..... eskola horretan: elektronika, informatika, telekomunikazioa etab. Horrelakoak izango ..... nik erakutsiko ..... profesioak.
- d. ANDRESEK: Ni alkate? Bai zera, lehenbiziko egunean dimitituko ..... nik. Nik ez dut balio horretarako.

\* \* \*

**C.**

Gizon batzuk ostatuan ari dira berriketan. Herriko kaleetan gero eta lapurreta gehiago egiten dela esan du batek. Etxetik ateratzeko ere beldurak dagoela esan du beste batek, gauzez batez ere. Orduan Nikasiok honela galdetu die lagunei:

—Aizue, zer egingo zenukete lapur batek labana eskuan duela diru guztia emateko eskatuko balizue?

Honela erantzun dute lagunek:

- a. IBONEK: Nik? Aurrena ingurura begiratuko ....., jenderik badagoen ikusteko. Gertu samarrean jendea ....., korrika hasiko nintzateke, lapurrengandik ihesi.
- b. MIKELEK: Korrika? Bai zera! Nik eskutik hartuko ..... lapurra, lurrera bota eta han edukiko ..... ertzainak etorri arte.
- c. ROBERTOK: Aurre egingo zenukeela? Hori erokeria! Zauri larri bat hartzeko ere! Nik diru guztia aterako ..... eta lapurrari emango nioke.
- d. FELIXEK: Nik ez ....., bada batere problemarik izango. Lasai-lasai geratuko ..... . Dirurik gabe ibiltzen naizenez, ez ..... xentimorik izango lapurrari emateko.

